

ESA Europako Agentzia Espazialak M. Mounir Bou-Ali irakaslearen lana errekonozitu du

2016/11/02

Proiektu horren garapenean honako hauek parte hartu dute: Pau y Pays de l'Adour Unibertsitatea, Londreseko Imperial College, Chinese Academy of Sciences, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, Mondragon Unibertsitatea, Frantziako Centre National de la Recherche Scientifique eta Core Laboratories, TOTAL, Qinetiq eta PetroChina RIPED enpresak. Proiektuaren helburua petrolio-industriaren intereserako presio altuetan egindako nahasketa termohidrodinamikoen portaera iragartzeko zenbakizko ereduak garatzea izan da. Eredu horien garapena orekarik gabeko termodinamikaren azterketan eta dinamika molekularrean oinarritzen da, beti ere, azterketa esperimentalen laguntzarekin.

Mikrograbitare egoeran presio altuetako neurri esperimentalak modu paraleloan landu dira SJ10 satelitean eta lurrian. MGEP-MUko instalazioetan garatu dira lurreko esperimentazioen zati bat eta beste hainbat koefiziente Pauko Unibertsitatean zehaztu dira. Ion Lizarraga, M. Mounir Bou-Ali irakaslearen doktoregaia MGEP-MUn, izan da bi unibertsitateetan lanketa hau egin duena.

Ikerketan eta teknologikoki lortutako emaitzez gain, proiektu honek Europako eta Txinako bazkideekin elkarlana sustatzeko balio izan du, bai ikuspegi akademikotik baita industrialetik ere

